

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Barakaldoko Udala****Barakaldoko gazteen emantzipaziorako diru-laguntzak emateko arauen Ordenantzak.**

Abenduaren 28ko 225/19/2017-13ko Udabatzaren Erabakiaren bitartez, hasierako onarpena eta informazio publikoaren tramitearen irekiera abian jarri dira, legearen arabera aurreikusitakoari jarraiki, Barakaldoko gazteen emantzipaziorako diru-laguntzak emateko arauen Ordenantzaren arabera, eta honela egingo da:

Lehena: Gazte Barakaldarren emantzipazioa sustatzeko diru-laguntzen Ordenantza Onartu, honako zehaztapen hauei jarraiki:

Barakaldoko Udala zeharo jakitun da emantzipazioa dela udalerriko gazteriak duen arazo handienetakoa bat, adin nagusitasuna heldu eta prestakuntza akademikoa bukatzean eta nork bere bizitza bakandua, pertsonala eta autonomia bideratzerakoan.

Arazoa konplexua da, adar askokoa: lan merkatura sartzeko eragozpenak, eta sartuta ere, gutxieneko bermeak dituen emantzipazio prozesua bati ekiteko behar besteko lansaria izango duen kontratu egonkor bata lortzea; jabetzapeko etxebizitzaren prezio garestiak; kolektibo horrek behar dituen baldintzak betetzen dituzten errentako etxebizitzaren eskasia; kredituak —eta batez ere, kreditu hipotekarioak abal eta bermerik gabe— lortzeko zailtasunak; eta, gurasoen etxetik irteteko asmoa zapuzten duten beste hainbat adar.

Nahi duen oro emantzipatu ahal izateak interes publiko erabatekoa du, populazio sektore zabal baten askatasun eremua zabaltzea dakarrelako eta, bizitza autonomia egiteko proiektua geure udalerrian sustraituz gero, sektore horretako gaitasunek ekarpen sozial garrantzitsuak egiteko aukerak ugaritzen dituelako.

Horregatik, horren ondo balioetsitako asmo horietarako diru-laguntzen emakida arautzea ebatzi du Udalak, 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrari, eta bertako terminoei nahiz zerikusirik duten beste araudienei zorroztz jarraiki.

Diru-laguntzaren helburua udalerriko gazteen emantzipazioa erraztea da, Barakaldoko gune guztietan alokairuko etxebizitza batera sarrera eta egonaldia sustatuz. Modu honetan, laguntza eskatzen duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteen ohiko etxebizitza izango denaren alokairua ordaintzeko laguntzak emango dira.

Oinarri hauetan finkatutako baldintzen arabera emango dira laguntzak, eskaera aurkezten den momentutik onuradunak bere gain hartzen duen alokairu gasturako, eta dagokion ekitaldian zehar, beti ere alokairuaren baldintzak berdin mantentzen badira epe horretan zehar. Errenta kontzeptutik kanpo daude garaje edo trasteleku gisako eranskinei, komunitateei edo kontribuzioei dagozkien gastuak. Alokairu kontratuan jasota badaude gastuak, eta ez bada hileko kostuaren beren.-beregiko frogagiririk aurkezten, gastuetako bakoitzari dagokion kopurua deskontatuko zaio errentari.

1. artikulua. — Xedea

Gazte barakaldarrei etxebizitza alokatzeak eragindako urteko gastuak (eratxikiak kenduta; alegia, garajeak, trastelekuak eta gainerako elementu osagarriak) ordaintzen laguntzeko diru-laguntzak arautzea du xede Ordenantza honek, gazteek emantzipazioa lortu eta bizitza autonomia garatzen hasteko aukera emateko.

2. artikulua. — Onuradunak

Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera emango diren laguntzen onuradun dira ondorengo baldintzok betetzen dituzten pertsona fisikoak, banakakoa nahiz taldea (bizikidetzat unitateetan elkartuta).



1. Eskaerak aurkezteko epea amaitzean 18 eta 35 urte bitarteko adina izatea. Bizikidetzaren unitateen kasuan, bizikidetzaren unitateko kide guztiek bete behar dute adinaren beharkizuna, haiekin biziko liratekeen menpeko adingabeek izan ezik.
2. Diru-laguntzak xede duen etxebizitzaren erroldatuta egotea. Bizikidetzaren unitatea bada, diru-laguntzak xede duen etxebizitzaren egon behar dute erroldatuta unitatea osatzen duten kide guztiak. Laguntzak xede duen epealdian iraungo du egoera horrek, eta horrela ez bada, diru-laguntza eskuratzeko eskubidea galduko da.
3. Kideetako batek, gutxienez, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik urtebete gutxienez egon beharko du erroldatuta Barakaldoko udalerrian.
4. Sinatuta edukitzea errentamendu kontratu bat edo emakidaren berri emandako egunetik zenbatutako hilabeteko epean, gehienez, kontratua sinatzeko konpromisoa hartuta izatea, etxebizitzak alokatzeko merkatua malgutu eta sustatzeko neurriei buruzko 4/2013ko Legeak aldatutako Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen barruan. Diru-laguntza jasoko bada, kontratuak gutxienez urtebeterako izan beharko dute.
5. Barakaldoko Udaleko sarrera publiko guztiak ez ezik beste edozein herri administrazioaren zerga-betebeharrak ere ordainduta izatea.
6. Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak ezarritako bateraezintasun balizkoren batean eroria ez egotea.
7. Eskariarekin batera, deialdian zehaztutako dokumentazioa aurkeztea, behar bezala beteta.
8. Jabetzapeko etxebizitzarik eta haren gaineko gozamen eskubiderik ez edukitzea, ez eskaera egin den egunean ez diruz lagundua izango den epealdian, ez eskaera egin aurreko bi urteetan.

Eskatzaileek gainontzeko beharkizunak betetzen badituzte, honako salbuespenak onartuko dira, azken atalean.

 - Judizialki etxebizitza bat atxikitzea beste bikotekideari, banaketa edo dibortzio prozesu baten ondoren.
 - Bizilekua uztera behartuak izan diren genero indarkeriaren jasadako emakumea izatea.
 - Titularra etxegabetua izan denean, eta etxebizitza judizialki nahiz notariotzaren bidez adjudikatu bazaio hirugarren mailara arteko ahaidetasun loturarik ez duen norbaiti.
 - Alegia, etxebizitzaren jabetza soila denean, eta beste norbaitenak, gozamina eta erabilera.
 - Herentzia edo dohaintzaren baten kariaz, etxebizitza bat edo gehiagoren jabetza izatea, jabetzaren portzentajeak ez badu % 50 gainditzen, ez eta partizipazioek 75.000 euroko balioa ere.
9. Etxebizitza errentan eman duenarekin lehen edo bigarren mailako odolkidetasun ahaidetasunik ez izatea.
10. Diruz lagundutako epealdian beste edozein administrazio publikotako laguntzarik ez izatea errentamendua ordaintzeko.
11. Diruz lagunduak izan daitezke urteko lanaren ondorioz, gutxienez, 9.000 euroko diru-irabazi gordinak dituztenek, eta, gehienez:
 - 25.000 euro gordin, urteko (bizikidetzaren unitateko kide bakar batez osatuta badago).
 - 35.000 euro gordin, urteko (bizikidetzaren unitateko kide bat baino gehiagorez osatuta badago).
12. Laguntzak jaso ahal izango dituzte aitortutako ezgaitasun fisiko edo psikikoa eduki eta administrazio organo eskumendunek halakotzat kalifikatutako eskatzaileek, baita lanaren ondoriozko irabaziak arestian eskatutako gutxieneko 9.000 euroetara iristen ez direnean ere.



13. 5.000 eurotik gorako kapital higigarriengatiko etekinak eskuratzen dituzten eskatzaileak.

14. Kontuan hartu da, esate baterako, diru-sarreraren zenbateko osoak kalkulaterakoan, seme-alaben mantenuagatiko pentsioari eta hileko hipoteka kuotei dagozkien zenbatekoak kentzea, bananduta edo dibortziatuta daudenen kasuan.

3. artikulua. — Diruz laguntzeko etxebizitzaren beharkizunak

Honako beharkizunok bete behar ditu etxebizitzak:

1. Barakaldoko udal mugartean egon behar du kokatua, eta bizitzeko baimena izan behar du.

2. Eskatzailearen edo bizikidetzaren unitatearen ohiko egoitza eta egoitza iraunkorra izatea edo izateko bidean egotea. Horrek esan nahi du ezingo duela urtean hiru hilez jarraian hutsik egon, non eta ez diren bizileku izaera hori aldatzeko aparteko zirkunstantziak gertatzen.

Ez dira diruz lagunduko, ondorengo inguruabarretako batean dauden etxebizitzetako errentak:

- Etxebizitza babestuak.
- Eretza SA Udal Baltzuko jabetzapeko etxebizitzak.
- Beste bati errentan utzikoak.
- Logelak errentan emanak dauzkatenak.
- Araudiak exijitutako bizigarritasun beharkizunak betetzen ez dituzten etxebizitza modura erabilitako lokalak.
- Denboraldiko etxebizitzatzat jotakoak.

4. artikulua. — Emateko prozedura

Norgehiagoka araubide bidez emango dira Ordenantza honetan araututako diru-laguntzak, ondorengo artikuluetan ezarritako arauari jarraikiz:

Indarrean den legeriak ezarritako modu eta lekuetan aurkeztu beharko dira eskaerak, eta dagokion deialdian ezarritako da noiz hasiko den aurkezteko epea. Diru-laguntza bakar bat emango da etxebizitza bakoitzeko. Etxebizitza bererako eskaera bat baino gehiago jasotzekotan, eskatutako beharkizunak betetzen dituen aurkezten lehena hartuko da kontuan.

Eskaera jasotzean, dokumentu guztiak aurkeztu diren ziurtatuko da. Eskaerak ez baiditu deialdi honetarako ezarritako beharkizun guztiak betetzen, hamar laneguneko epe luzaezina izango du interesatuak falta dituenak aurkezteko. Horrela egin ezean, eskaera bertan behera utzia duela ulertuko da.

Hirigintza Saileko Lege Zerbitzuko Buruzagitza da berariazko oinarriotara bildutako laguntzak emango dituen organoa. Lege Zerbitzuko Buruzagitza, Kultura, Hezkuntza, Gazteria, Euskara eta Droga-menpekotasunen Arloko teknikari batek eta Ondare Zerbitzuko Buruzagitza osatuko dute kide anitzeko organoa.

Alkate andereak ebatziko ditu dekretu bidez eskaerak, bai eta ebazpena eman ere, eskaerak aurkezteko epea amaitutako egunetik zenbatutako hiru hileko epean, gehienez.

Epea amaitutakoan, diru-laguntza gaitzetsizat joko da, beren-beregizko ebazpenik eman ez bada, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Udalaren zerga-betebeharren ordainketa egunean eduki beharko da, deialdi honetan arautzen den diru-laguntza emango bada eta onuradunei ordainduko bazaie. Itzulketa espedienteren bat edo zehapen-prozeduraren bat egotekotan tartean, aipatutako horietakoa zehaztu zain geratuko da ordainketa.

Deialdia egiteko dekretu nahiz ebazpen bidez erabakiko da ekitaldi bakoitzean, diru-laguntzetarako erabilgarri dagoen kredituaren zenbateko osoa. Bertan adieraziko



da zenbatekoak hainbanatzeko metodologia, beharkizunak betetzen dituzten eskaerek deialdian jasotzen den kredituaren zenbateko osoa gainditzen badute.

Errentamendu kontratuan etxebizitzaz gainerako elementuak sartzen baldin badira, hala nola, trastelekua, garajea edo antzekoak, eta ez bada banakaturik agertzen kontratuan edo ordainagiri nahiz fakturan zein den elementu horiei egotz dakizkien errenta, deialdiaren dekretu edo ebazpenean erabakitako kopuru globala kenduko zaio errenta konputagarriari.

5. artikulua. — *Emateko irizpideak*

Urteko alokairuaren prezioaren %20 eta 50% bitartekoa izango da diru-laguntzaren zenbatekoa, eta gehienezko zenbatekoa, ondoren aipatzen diren diru-sarrera tarteetako bakoitzerako ekitaldi bakoitzean deialdiaren dekretu edo ebazpenean zehaztutakoa.

Emango den diru-laguntzaren portzentajea eta zenbatekoa erabakitzeko, eskatzai-learen frogatutako urteko diru-sarreraren araberrako tartekako sistema erabiliko da. Tarte bakoitzerako eskatzaileak ordaindutako nahiz ordaindu beharreko errentaren zenbatekoaren gaineko portzentaje bat ezarriko da.

Diru-laguntzei buruzko urteko deialdian zehaztuko da ezarritako gutxieneko eta gehieneko zenbatekoen arteko errenta tarte konputagarrien neurria bai eta emango diren diru-laguntzen portzentajeak ere.

Helbide aldaketa gertatuz gero, diruz lagundutako ekitaldian ordaindu beharreko errentaren zenbatekoa aldatuko balitz, Udalaren jakinaren gainean jarri beharko du interesatuak. Errenta txikiagoa balitz, diru-laguntza emateko ebazpena aldatzeari ekingo zaio. Handiagoa izatekotan, eskaera berria egin beharko luke interesatuak, deialdian aurreikusitako prozedurari jarraituz, aurrekoa osorik ordezkatu edo zati batean aldatzeko.

6. artikulua. — *Abono*

Aldez aurretik tramitatutako ditu udal organo eskudunak diru-laguntzen ordainketak, baina ez die onuradunei inolako bermerik eskatuko horretarako.

Hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31 baino lehenago aurkeztuko dira gastuen frogagiriak, deialdian ezarritako modu eta lekuetan.

Frogagirik gutxienez eduki behar dute errentamenduak xede duen etxebizitzaren errentari dagokion banku-transferentziaren agiria, errenteroaren izenean egina. Horrelakoetan, egindako ordainketaren agiri originala edo kopia konpultsatua erantsi beharko da, bertan jasoz errentatzailearen eta errentariaren datuak eta errentamenduari dagokion hilabetea.

Salbuespen gisa, eta aurrekorik ezean, errentatzaileak sinatu eta behar bezala datatutako ordainagiri originalak onartuko dira. Bertan, ordainketa egin duenaren datuak eta jaso duenarenak agertuko dira bai eta ordainketari dagokion hilabetea eta errentamenduak xede duen etxebizitza ere. Diru-laguntza eskatu duena eta ordainketa egiten duena pertsona bera izango da.

7. artikulua. — *Onuradunen betebeharrak*

Honako betebeharrak dituzte diru-laguntzak jasotzen dituzten onuradunek:

1. Jasotako diru-laguntza osoa erabili behar dute eskaeran ohiko bizileku gisa agertzen den etxebizitzaren errenta ordaintzeko, eta hori hala dela egiaztatu, aurreko artikuluan agertzen den moduan.

2. Organo emaileari eman, xede bererako eskatu eta jasotako diru-laguntzen berri.

3. Organo emaileak, hala egokituz gero, egin beharreko egiaztatze jarduketak onartu, bai eta kontrol organo eskudunek egin ditzaketen edozelako finantza-egiaztapen eta kontrolak ere, jarduketa horietarako eskatzen zaien informazio eta dokumentazioa oro aurkeztuz. Horri dagokionez, onuradunek baimena emango diete udal langileei ikuskapena egiteko etxera sartzen. Oinarriotan ezarritako beharkizun horiek betetzen ote diren egiaztatze behar adina datu-base kontsultatu ahal izango dituzte, horrenbestez.



4. Laguntza eman ostean, hura onartu ahal izateko baldintzetan gerta dadin aldaketa oro jakinaraztea.

5. Jakinarazi, bereziki, edozein helbide aldaketa, kontratu berria sinatu ondorengo bost eguneko epean, gehienez.

Betebehar hauetako bakar bat ez betetzea aski izango da laguntza atzera bota eta oker kobratutako kopuruak itzularazteko.

8. artikulua. — *Baliogabetzea eta itzultzea*

Bidezkoa izango da diru-laguntza baliogabetzea, eta, hala egokituz gero, oker jasotako kopuruak osorik nahiz haren zati bat itzultzea —bai eta dagozkion atzerapen interesak exijitzea ere, diru-laguntza jaso den egunetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte— Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37 artikulura bildutako kasuetako gertatzen denean.

Diru-laguntza eman duen organo berak emango du diru itzultzeko eskaerari dagokion ebazpena.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. Tituluak prozedura-arauek diotenarekin bat etorriko da diru-laguntzak itzultzeko espedienteak, eta bertan emango zaio interesatuari 15 laneguneko epea entzuna izateko.

9. artikulua. — *Zehapen araubidea*

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko IV. tituluak eta Euskal Herriko Herri Administrazioen Zigorrezko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak ezarritakoa da arau-hausteei eta zigorrei buruzko araubidea.

10. artikulua. — *Errekurtsoak*

Diru-laguntza emateko behin betiko ebazpenaren auka berraztertze haurtzeko errekurtsua jarri ahal izango da, hura eman zuen organo berean, jakinarazpena jasotako egunaren biharamunaz ondoko hilabeteko epean, gehienez. Era berean, administrazioarekiko auzi errekurtsua ere jarri ahal izango da, indarrean den legerian ezarritako moduan eta epeetan.

11. artikulua — *Bateraezintasunak*

Ordenantza honetan araututako diru-laguntzak bateraezinak dira xede bererako emandako beste edozein laguntzekin.

12. artikulua. — *Argitaratzea eta indarrean jartzea*

1. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udal webgunean eta udaletxeko ediktuen taulan argitaratuko da ordenantza hau, Toki Araubideko Oinarrien apirilaren biko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Dagokion urteko deialdia Diru Laguntzen Datu Base Nazionalean erregistratuko da, eta hark helaraziko du deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialera, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17, 18 eta 20 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

3. Era beran, diru-laguntza emateko ebazpenetako bakoitza argitaratuko da udal webgunean bai Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean ere, bat etorritik Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 20 artikuluekin eta Lege arautegia onartzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 30ekin.

Barakaldon, 2018ko urtarrilaren 10ean.—Alkatea, Amaia del Campo Berasategui